

Gau Giron, jazz doinuak

Joxan Goikoetxea

ariko da gaur ▶ 3



‘Xaka’ oroitzeko txirrindu proba Alegiako plazatik abiatuko da gaur

DENETIK ▶ Orbegozo panderojolea omenduko dute; elizaren inaugurazioa eta musika ugari izango da ▶ 6-9



Haurrek ederki pasatu zuten aparrarekin jolasten, eguraldi egokia izan baitzuten horretarako. OLAIJA ESKITXABEL



OLAIJA ESKITXABEL

MANUEL EGINGUREN ▶ GOTZAINA BOLIVIAN

«Beti zapalduta eta
esklabuak bezala
bizi izan dira indioak»

Bidegoiango fraile frantziskotarra
indioei laguntzen ari da Benin ▶ 5



ALEGIKO UDALA

FESTA GIROA...

EUSKARA AHOAN...

EZ DAUDENAK GOGOAN...

Enparantza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16
www.alegia.net



ondo pasa!

TURISMOA ▶

LEIRE MONTES

Asteartean aurkeztu zuten Donostian *Ibilaldiak Tolosaldean barrera* gida. Tolosaldea Tour eskualdeko turismo agentziak egina, Tolosaldeko 39 bide seinaleztatu jasotzen ditu liburuak. Bide horiek eta, era berean, eskualdea gehiago ezagutzeko bi ibilbide egiteko aukera eskainiko diete orain herritarrei.

Bihar, 09:00etan, Trianguloan elkartuko dira nahi duten guztiak, eta Alkizara abiatuko dira. Bertatik hasiko dituzte bi ibilbideak: Aginagako ibilbidea (5,2 kilometro) eta Alkiza-Urdanesi-Alkiza (6,3 kilometro). Biologoak eta ingurune naturaleko adituak izango dituzte gidari ibiltariak: «Beraz, parte hartzen dutenek, ibili ez ezik, haien azalpenak eta esperientziekin ikasteko aukera izango dute». Alkizako eliza eta plaza inguruko etxe eta baserriak ere ikusiko dituzte. Plazan, gainera, hamaiketakoa egingo dute, dantzariak eta musika talde batek alaituta. 13:00etan itzuliko dira Alkizatik Tolosara.

AGINAGAKO IBILBIDEA

«Familiari-eta egiteko ibilbidea da, 5 bat kilometro luze, eta desnivel gutxikoa (95 metro). Bi ordu inguruko ibilaldia da, eta aukera ematen du Alkizako inguruz eta historiari zerbait gehiago ikasteko», azaldu dute Tolosaldea Tour-ekoek.

Herriko plazatik —edo Santiago basilatik, aparkalekutik—, hasten da ibilbidea. Bideari jarraituz, Etxabe Txiki baserria atzean utzi, Txurro mendia (431 metro) ezkerrean dagoen bideak Aginaga baserrira eramaten du, eta baserri horren eskuinaldetik ateratzen denak Basozabal baserrira; horren aurrean dagoen bideak hel du behar zaio eta karobi bat pasatu, berriro Bi Pagotara ateratzeko. Ezkerretik Zumitza baserria pasatu, eta herrirako bidean izango da ibiltaria.

Santiago basiliza, Bi Pagota, Aginaga baserria eta Basozabal karobia dira ibilbidearen interesguneak.

ALKIZA-URDANESI-ALKIZA

«Ibilbide luzeagoa da, eta des-

Alkizako inguruetan barrena, bihar, eskualdea ezagutzen

‘Ibilaldiak Tolosaldean barrena’ gidaren aurkezpenaren harira, Alkiza inguruan bi ibilaldi egiteko txangoa antolatu dute; goizpasa egingo dute bihar

nibel handiagoa du. Bi ordu pasatxo behar dira», azaldu dute eskualdeko turismo agentziakoek.

Itxuraingo lepoan barrena abiatuko da ibiltaria, eskuinera jaitsita, Urdanesi errekarantz, Zelatungo gainera doan bidea utzita. Errekarekiko paraleloan jarraituko du, bidea eta erreka bi aldi gurutzatuz. Pagadietan barrera eta belardiak zeharkatuz jarraitzen du odoren bideak. Eskuineko bidea hartuta, karobiarekin egiten du topo. Aritzeta Garai pasatu, eta ezkerrean hartuta Aritzeta Erdia eta Aritzeta Behera pasatzen dira. Lizarzelai baserrira iritsi baino 50 metro lehenago porlanezko bidera aterata eta berehala herriko plazan izango da ibiltaria.

Besteak beste, Alkizako plaza eta Lete baserria, Santa Krutz, Itxuraingo tumulua eta lepoa, Urdanesi erreka, karobia, Aritzeta Erdi baserria eta Lizarzelai baserria dira ibilbidearen interesguneak.



Alkiza da bi ibilbideen abiapuntua; herriko plazan hamaiketakoa egingo dute. HITZA



Tolosaldekoek egindakoa, eskualdekoei aurkeztua

Donostian ez ezik, Tolosan ere aurkeztu dute *Ibilaldiak Tolosaldean barrena* gida. Jende bete zen atzo udaletxeko batzar aretoa liburu bera eta haren inguruko xehetasunak aurrez aurre ikusi eta entzuteko. Antxon Agirre Sorondok «senderismoaren onurak» azpimarratu zituen. Ildo beretik mintzatu zen Izaskun Orbegozo, liburuaren koordinazio lanak egin dituen Galemys enpresaren izenean, eta gidan «era batera

parte hartu duten guztiak» izan zituen gogoan. Gipuzkoako Mendi Federazioko lehendakari Juan Pedro Iturbek, bestalde, ibilbideen homologazioaz jardun zuen. Eta Bernardo Goikoetxea Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziako gerenteak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkate eta garapen agentziako lehendakariak, azkenik, «eskualde guztiaren elkarlana» azpimarratu zuten. LEIRE MONTES

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA

Gorostel kalea urbanizatzeko proiektua idazteko adjudikazioan parte hartzeko eskaintzak aurkezteko epea 2004ko uztailaren 27an amaitzen da, 13:00etan.

Tolosan, 2004ko uztaila 14a - ALKATEA

KULTURA ▶

Saharako festa egingo dute bihar Plaza Berrian

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, Udalaren laguntzarekin, Saharako festa antolatu du gaurko. Plaza Berrian hasiko da jaia goizean, eta lehenik *haima* bat jarriko dute, tea edateko aukera eskainiz. 14:00etan herri bazkaria egingo dute eta txatela Laier, Iratxo, Shanti eta Ikatz tabernetan dira salgai. Arratsaldeaz haur jolasak izango dira eta eguna amaitzeko Saharako talde batek kontzertua emango du.

HEZKUNTZA ▶

Izen-ematea zabalik Peñascal Fundazioan

Peñascal Fundazioak datorren ikasturterako Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrícula epea ireki du: 16 eta 25 urte bitarteko graduaturik gabeko gazteentzat egin du eskaintza, eta mailako prestakuntza tekniko, graduatua lortzeko eskolak eta lan mundurako irtenbidea eskaintzen du. Informazio gehiagorako: 943 67 61 61.

PALETA ▶

Paleta partiduak izango dira gaur Berazubín

Tolosa CF-ko Paleta Txapelketako partiduak izango dira gaur Berazubín. Renobales-Imaz Otermin-Goitiaren aurka ariko dira, eta Apeztegia-Imaz Lontxo-Nazabalen kontra. Herenegungo neurketetan Apeztegia eta Maiza nagusitu zitzaizkion Bengoetxeari eta Goikoetxeari 30 eta 18, eta Yuguerosek eta Aldazabalek 30 eta 20 irabazi zituzten Orbegozori eta Gofiri.

MENDIA ▶

Pasabanek eta kideek jarri dute 3. kanpamentua

Edurne Pasabanek eta haren espedizio kideek jarri dute jada 3. kanpamentua 7.400 metrora; egokituta daude, hortaz, ingurunera eta eguraldi baldintzetara. Eguraldiak hobera egiten duenean saiaturako dira bost lagunak K2-ko gailurra egiten.

GAU GIRO ▶

Gau Giroko bigarrena: Joxan Goikoetxea Trio, gaur gauean

Txema Garces eta Igor Telletxearekin batera jardungo du Plaza Berrian 22:30ean

IRATXE ETXEBESTE

Joxan Goikoetxea Trio jazz taldearen emanaldia izango da gaur 22:30etik aurrera Plaza Berrian. Joan den astean Los Veracruz taldearen Mexikoko musikak eman zion hasiera aurtengo Gau Girori, eta bigarren emanaldia izango da, hortaz, gaur. Aire librean musikaz gozatu nahi duenarentzat ekitaldi aproposa da gauekoa.

Goikoetxeak —eskusoinua joz— Txema Graces musikari tolosarra —kontrabaxuarekin— eta Igor Telletxea berarra —baterian— izango ditu lagun gaurko emanaldian, eta Hitzari esan dionez, «jazz musset» estiloko kantuak joko dituzte: «Frantses kutsuko musika eskainiko dugu, akordeoi klasikoa oinarri hartuta belaunaldi berriek Frantzia egindakoa». Hala eta guztiz ere, Galliano, Piazzola eta bestelako klasikoak sortze-lanekin ere osatu nahi izan du Goikoetxeak erreperitorioa gaur gauerako. Horregatik, bere lehen hiru diskoetan jorratu zuen musika mota horretara «bueltatzen» dela dio hernaniarrak. «Publiko zabalentzat ez dira oso ezagunak izango, baina musika oso entzungarria da; jende guztiak entzuteko modukoa».

Joxan Goikoetxea Trio taldeak ematen duen hirugarren emanaldia da gaurkoa. «Jendeak oso gustura hartu gaitu eskaintzen duguna ezezaguna izan arren, eta ea Tolosan ere erantzun bera izaten dugun». Ordubete luze iraungo du emanaldia. Jazz hitza aipatzean jendea «beldurtu» egiten dela uste du Goikoetxeak, baina askotariko piezak joko dituztela eta musika zale guztiak egin diebertara joateko gonbita.

Joxan Goikoetxea musikariak galdetuta askok eta askok diote «hiperaktibitateak eta ugari-tasunak» markatzen dutela bere jarduna. Euskal musikari «elektriko eta berritzaile» hernaniarra musika, kantua eta dantza alorretan murgilduta



Joxan Goikoetxeak Garcesekin eta Telletxearekin jardungo du. HITZA

abiatu zen musika munduan: txistuarekin hasiera batean eta eskusoinuarekin beranduago. Lan horiek Donostiako Musika Kontserbatorioan egiten ari zen ikasketekin osatu zituen, akordeoi garaikidea eta abangoardiako musikaren eremuera hurbilduz. Karrera amaierako saria lortu zuen, Europako lehiaketa ezberdinetan parte hartu zuen, bai eta Le Thor (Frantzia) hirian ikasketekin jarraitu ere.

Richard Galliano soinu-jole frantziarraren eraginaren pean bere lehen diskoak, *Lehenengo geltokian* (1988) eta *Kollage* (1991), akordeoi-jazzaren harira grabatu zituen. HAT (Hernaniko Akordeoi Taldea) sortu zuen 1987an, erreperitorio kla-

sikoa oinarri hartuta ganbara musika jorratuz. Astor Piazzola-ren omenezko *Libertango* (1991) ere eman zuen argitara.

Kolaborazio lan ugari

1985 urteaz geroztik irakasle lanetan ari da Hernaniko Musika Eskolan, eta aldi berean makina bat kolaborazio egin izan ditu hainbat abeslariarekin eta taldearekin batera. Euskal Herrian (Txomin Artola, Amaia Zubiria, Oskorri, Kepa Junkera, Joseba Tapia, Xabier Lete, Imanol, Paco Ibañez, Anje Duhalde, Antton Valverde, Xabier Euzkitze, Andoni Egaña, Mikel Laboa...) eta atzerrian (Javier Alvarez, Suso Saiz, Jorge Drexler, Diego Vasallo, Luis Eduar-

do Aute, Alberto Iglesias, Dulce Pontes, Noa, Alasdair Fraser & Skydance, Bingen Mendizabal, Joan Valent, Pasion Vega...) jardundakoa da, eta antzerki nahiz telebistako lanetarako musikaren egile ere bada izan.

Musika tradizionalari dagokionean, musikari hernaniarraren ibilbidea bi egitasmo paralelotan banatzen da: batek, zuzeneko folk tradizionalaren alorrean Albokarekin egindako lana —hiru grabaketa diskografiko eginez: *Alboka* (1994), *Bi beso lur* (1998) eta *Lorius* (2000)—; bestetik, Juan Mari Beltranekin batera sortutako lanak —*Eguraren orporki dator...* (1993) eta *Beti ttuntun* (1998)—. Musikaren esperimentazio eta birziklapenaren gainean, harentzat ezinbesteko erreferentzia den Suso Saiz kitarrarekin eta ekoizlearekin batera estudioan lan egin du. *Quartet* (1997), zuzenean, eta *Elektro psychodelic film music remix* (2000) grabatu dituzte bi musikariek elkarrekin.

Libertango lanaren ondoren, *Ametsaren bidea* (1994), *Metropolis* (1995) eta *Supernova* (2000) sortu ditu Goikoetxeak, «musika-irudia-testua hirukiaren» inguruan proposatzen duen bideari eutsiz. Hiru elementu horiek uztartzen dituen *Goazen lagun* (1996) ere plazaratu du, bestalde; berak CD-Rom multimedia formatuan egindako lehen lana eta Euskal Herrian ere era honetara inoiz argitaratu eman den lehen diskoak. Sortze-kontzeptu berri hori oinarri hartuta, Azartan, euskal artisten lanak formatu berri horretan argitaratzekoan asmatutako zigilu berria sortzera animatu da.

KONTZERTUA ▶

Gaia. Joxan Goikoetxea Trio taldearen saioa: jazz musika.
Eguna. Gaur, ostirala.
Ordua. 22:30.
Herria. Tolosa.
Tokia. Plaza Berria.



www.tolosaldekohitza.info

► sar zaitzek eskualdeko web atarira ► inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

ASTEASU-ALBIZTUR ▶ JAIAK

Asteasu eta Albiztur jai giroan murgilduko dira santamarinetan

Asteasuko Santamañako jaiak gaur hasiko dira igandera bitarte; Albizturren jai eguna igandean izango da

GARAZI AZKUE

Igandean izango da Santa Marina eguna, eta bada Tolosaldean egun hau ospatzen duen herririk. Asteasun, Santamaña ermitaren bueltan izango da festa asteburu osoan. Albizturko auzoan, berriz, igandean izango dute egun guztiko jaiak.

Asteasuko Santamaña jaiak pasa den igandean izan zuten aurrerapena, Santamañako IV. Kros Igoerarekin eta Santamañako IX. Mus Txapelketarekin. Festa giroan murgilduta, gaur izango dute segida. 20:00etan botako dute txupinazoa eta ordu berean igoko da Tranpazulo festak agurtzera. Ordu horretatik aurrera ekintzaz beteriko asteburu izango dute bertakoek eta ingurukoek. Jaiak igande gauerdian amaituko dira.

Albizturren, igandean izango da Santa Marinako jaieguna izen bereko auzoan. Hemen ere meza nagusia, herri kirolak edota bertsolariak izango dira goizean hasi eta iluntzera arte. Herri kirolean, aizkolariak, trontzalariak edota korrikalariak izango dira, bertan arituko dira Aimar Irigoien eta Izeta II. harrijaotzaileak ere. Eta egun guztian zehar Arandia anaien trikiti soinuak alaituko dute.



Albizturgo Santa Marina jaiak, iaz. M. JAUREGI

EGITARAUA ▶

ASTEASU (SANTAMAÑA)

Gaur.

20:00. Festen hasiera: txupinazoa eta Tranpazuloren igoera.

21:00. Herri afaria.

23:00. Zabale eta Larrañaga trikitilariak

Goizaldean. Txokolatada.

Bihar.

11:00. Meza. Eta ondoren hamaiketakoa.

13:00. Herri kirolak.

Ondoren. Laja eta Izer trikitilariak eta Mañukorta eta Zeberio bertsolariak.

17:00. Haur jolasak.

18:30. IV. Nazioarteko Toka Txapelketa.

23:00. Laja eta Izer trikitilariak goizaldera arte.

Goizaldean. Txokolatada.

Uztailak 18, igandea.

10:00. Andazarrateko XX. Igoera. Federatugabeko txirrindularientzat izango da lasterketa.

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Herri kirolak. Peñagariako eta Telleria bertsolariekin eta Laja eta taldearekin.

16:30. Kalejira.

19:00. IV. Zaldi Lasterketa.

Gauean. Laja eta taldea trikitilariak.

Gauerdian. Tranpazuloren jaitsiera.

ALBIZTUR (SANTA MARINA)

Uztailak 18, igandea.

12:30. Meza nagusia.

18:30. Herri kirolak.

Ondoren. Bertsolariak, Beñat eta Unai Gaztelumendi.

ADUNA ▶ GIZARTEA

Sahara Eguna antolatu dute biharko

Saharar haurrei ongietorria egingo diete; bazkaria eta emanaldiak izango dira

G. AZKUE

Sahara-Aduna elkarteak Sahara Eguna antolatu du larunbat honetarako. Egun guztiko festa antolatu du Saharatik etorri eta Gipuzkoan dauden haur guztientzat.

Jaia 11:30ean hasiko da, ongietorriarekin. Ondoren, emanaldi berezia izango dute frontoian. 12:15ean bigantxak eta poneyak jarriko dituzte

haurrak ibili ahal izateko. Eta 13:30ean bazkaria izango dute herriko eta Saharako haurrek.

Arratsaldean, jolasak antolatu dituzte guztientzat. Jarraian Aitor Furundarena musikariak dantzaldia eskainiko du bertan dauden haur eta helduentzat.

Eta eguna bukatzeko, txokolate beroa eta bizkotxoak egingo dira guztientzat.



Garagardo Azoka, irekita

VILLABONA ▶ Villabonako 8. Garagardo Azoka iritsi da dagoeneko. Atzo ireki zituzten ateak eta igandera bitarte egongo da zabalik, 18:00etatik 01:00ak arte. Garagardoa eta janaria nahi adina izango da lau egun hauetan zehar Txermingo ikastolan. G. AZKUE



Erraustegiaren aurka

VILLABONA ▶ Herenegun iluntzean jende ugari bildu zen Villabonako udaletxearen aurrean, *Erraustegirik ez! ez Amasan, ez inon!* lelopean soinu eta buila ateratzeko asmoz. Bertan bildu zirenak udaletxera igo ziren ordu horretan zen udalbatzarrerara. Erraustegiaren behin betiko kokapena astelehenean bozkatuko dute udalek, taldearen eskakizuna ez bozkatzea da, erraustegia inon jarri ez dezaten. Bi orduz egon ostean atera ziren guztiak udaletxetik 22:30ak aldean. G. AZKUE

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.



MANUEL EGIGUREN ▶ BENIKO (BOLIVIA) GOTZAIN LAGUNTZAILEA

«Lurra lehentasunezko gaia da indioentzat»

Hamaika urterekin joan zen Egiguren Arantzazura; orduz geroztik, alde batetik bestera lanean ibili da

OLAIA ESKITXABEL

Goiatzeko semea da Manuel Egiguren fraile frantziskotarra; Beniko (Bolivia) gotzain laguntzaile izendatu zuten 1982an. Orduz geroztik, bertako indioei laguntzen aritzen da. Egun hauetan Euskal Herrian aurkitzen da udaletxe batetik bestera indioei laguntzeko proiektuak martxan jartzeko diru laguntza eskatuz.

Arantzazura gaztetxoa zinelarik joan zinen; han hasi zen dena.

Goiatzeko bi lagun Arantzazura joan ziren fraile eta nik ere horixe egitea pentsatu nuen; hamaika urterekin joan nintzen. Karrera guztian ez nuen duda asko izan; geroz eta sendago sentitzen nintzen nire bokazioarekin. Eta misiolari izateko ilusioa ere banuen. Aurten, 50 urte, urrezko ezteiak, egin ditut fraile gisa. Lehenengo urtetan Bermeon aritu nintzen gazteekin lanean

zazpi urtez; egun batetan agintariak Ameriketara misioak ematera joateko gonbitea luzatu zidan; baietz erantzun nuen. Amarengatik agurtu eta boliviara joan nintzen.

Kolonbiatik Benira (Bolivia) joan bitartean beste hainbat lekutan aritu zinen lanean, ezta?

Kolonbiatik Ekuadorrera joan nintzen beste 90 misiolari lagunduta; batetik bestera gertatu gabe aritzen ginen; garai bateko, aintzinako misioak ematen. Ondoren, Santo Domingon, Salvadorren, Uruguayan, Argentinan eta Paraguaietan izan nintzen. Paraguaietan nengoela, Beniko (Boliviako) gotzain laguntzaile izendatu zidaten; bertan 22 urte daramatzat. Nire bigarren etxea da.

Hego Amerikan, Liberazioaren Teologia delakoa ezagutu zenuen.

Amerikara joan nintzenean, gure pentsakera oso partikularra zen; fraileek eta apaizek, egi guztiazen eta mundu guztiazen jabe ginela pentsatzen genuen. Amerikara joan, misioak ematen hasi eta hango miseriaren ohartuta izugarritzko buelta eman zuen nire buruak, bihotzak eta pentsakerak; 180 gauduko buelta. Karreran ikasi eta ikusitakoak han ez zuela balio ohartu nintzen; hura beste mundu bat zela. Ameriketara, Eliza berria, Kristo eta Ama Birjina berri bat topatu nituen. Apaiz gazteek Hego Amerikan eta zentro Amerikan mundu bat zetorrela pentsatzen genuen; ilusio horrekin jendearekin jokatzeko genuen. Baina ilusio guzti horiek kalera joan ziren; diktadurak etorri ziren, lagun askok espetxean amaitu zuten, milaka hildako... ezagutzea tokatu zait misioak ematen ari nintzenean.

Zein egoera aurkitu zenuen Benira iristean?

Bolivian, aldaketa handia egon da indioekin. Beti zapalduta eta esklabuak bezala bizi izan



O. ESKITXABEL

INDIOAK

«Beti zapalduta eta esklabuak bezala bizi izan dira; abeltzainek beraiekin nahi zutena egiten zuten»

MARTXA

«Orain dela hamalau urte bederatzirehun indioek martxa bat abiatu zuten Lurra eta duintasuna lelopean»

LEHENTASUNAK

«Produktzioa, liderrak formatzea eta euren kultura salbatzea lehentasunezko gaiak dira indioentzat»

dira indioak; hango abeltzainek beraiekin nahi zutena egiten zuten. Egoera ikusita indioentzako ikastaroak, mintegiak... antolatzen hasi nintzen; indioak prestatzeko, antolatzeko eta liderrak formatzeko lanean. Zortzi urte eman nituen lan horretan, beste GKE eta laguntzaileekin. Orain dela hamalau urte Trinidadetik (Beniko hiriburua) bederatzirehun indioek martxa bat abiatu zuten hankahutsik *Lurra eta duintasuna* lelopean; La Paz-eraino iritsi ziren hogeita hamasei egunetan. Herri guztietan harrera beroa jaso zuten. La Paz-en hogeita egun pasa zituzten gobernuarekin borrokan; azkenean, eskubide batzuek onartu zituzkieten; orduan hartu zuten indarra eta nortasuna. Hitz egiten hasi dira, eta jendea beraiei garrantzia ematen hasi da. Indioak pertsonak zirela konturatu ziren. Orduz geroztik indioek borroka asko

egin dute; bide horretan laguntzaile izan gaituzte.

Lurra eta duintasuna al dira indioen lehentasunak orain?

Lurra lehentasunezko gaia da indioentzako; borroka asko egin ondoren, lur zatiak beraien izenean jartzea lortu dugu. Orain arte ez zuten lur jabetzarik. Hori lortzeko eta lur zatiak finkatzeko abeltzainekin borrokatu behar izan ziren. Lan horretan asko lagundu digute Gipuzkoako Udalek, Euskal Herriako Gobernuak... Lur kontua azkenean konponduta dagoela esan daiteke.

Beraien lurrak lantzen hasi al dira orain indioak?

Orain, produktzioa dibertsifikatzeko, komertzializazioa hobetzeko... lanean ari dira. Horretarako bederatzita eskola ditugu, gaztetxoek ikasteko eta ondoren euren herrietan ikasitakoak praktikan jartzeko. Euren bizitza hobetzeko baldintzak sortu behar dira eta egiten dituzten

lanak, produktuak... merkatutzeko lana garrantzitsua da.

Lurraren arazoa konponduta, zeintzuk dira indioen lehentasunak?

Produktzioa, liderrak formatzea eta euren kultura (historia, mitak, hizkuntzak, musika...) salbatzea lehentasunezko gaiak dira indioentzat. Formazio politikoa ere beharrezkoa izango da; orain arte, alkate, zinegotzi... izateko talde politiko batekoa izan behar zuten; egun, independente bezala ere aurkeztu zaitezke. Indioak udal-txeetan, Instituzioetan... sartzea nahi dugu, benetan protagonista izateko. Ehundik hirurogeita zazpi indioak dira eta inoiz ez dira ez alkate, ez diputatu, zinegotzi... izan. Iritsi da momentua; baina horretarako ere formazioa behar dute. Aurten jo nahi dute eta asko estimatzen dute Euskal Herriatik bidalitako laguntza; bihotz onez jasotzen dute.

TXIRRINDULARI LASTERKETA ▶

OLAIA ESKITXABEL

Elite eta hogeita hiru urtez azpiko txirrindulariak irtingo dira gaur goizean Alegiako plazatik, Xakaren oroimenezko proba dela-eta. Aurten, eta aspaldiko partez, herriko plazatik izango da irteera neutralizatua: «Kalea txukun egotea espero dugu; gurpilak erraz pintxatu baitaitezke. Horrela ez izatekotan, Larraitx auzotik abiatuko dira», zehaztu du Jesus Mari Otañok, proba antolatzen duen Languarre Txirrindu Elkarteko kideak.

Epaileak Larraitx auzora iritsitakoan astinduko du ikurriña; amaiera, ohi bezala, leku berean izango da. Aurten, lehenengoz, herriko plazan banatuko dira sariak.

«Lasterketa astegunean izanda txirrindulari kopurua aurreko urteetan baino baxuagoa» izango dela azaldu du Otañok; hala ere, «140 txirrindulari inguru gerturatzea», espero dutela zehaztu dute antolatzaileek.

130 kilometroko bidea izango dute aurretik txirrindulariek: «Lasterketa gogorrak eta luzeagoak ere antolatzen ditugu beste urtetan», zehaztu dute antolatzaileek.

Taldean joateko ibilbidea dela zehaztu dute; izan ere, «azken urteetan helmugara bakar-kari iristen ziren txirrindulariak; aurten esprintean iristeko proba antolatzen saiatu gara. Lortzen dugun ikusi behar».

Urte urte

Orain dela hogeita sei urte, 1979an hasi zen Languarre Txirrindulari Elkartea Jose Antonio Munduate txirrinduzalearen, Xaka-ren, oroimenezko txirrindulari proba antolatzen. Urte hartan, 40 txirrindulari hartu zuten parte; iaz, 179 irten ziren. Txirrindulari gehien 1996an izan ziren, 236 txirrindulari hartu baitzuten parte.

Datuak ikusiz, Xakaren oroimenezko proba antolatzen denetik proba bi aldiz irabazi duen txirrindulari bakarra Xabier Usabiaga dela ikus daiteke.



1992ko Xakaren oroimenezko probaren irudia; txirrindulariak Orendaingo bidegurutzetik pasatzen. HITZA

130 kilometroko ibilbidea, 'Xaka'-ren oroimenezkoan

Elite eta hogeita hiru urtez azpiko mailako txirrindulariek 09:00etan hartuko dute irteera herriko plazatik

1990ean eta 1991an irabazi zuen asteasuarrak.

Xakaren oroimenezkoaz gain, beste proba asko antolatzen izan ditu Languarre Txirrindulari Elkartea. Horien artean aipatzekoak dira Altzoko lasterketa, Memorial Gervais erlojupekoa, Juan Luis Arrieta erlojupekoa... 1992an Euskadiko Txapelketako amaierako etapa eta iaz junior eta kadeteen taldekako erlojupekoa ere antolatu zituzten, besteak beste.

Aurten, bi proba

Urte askoan, urteko sei proba antolatu dituzte: «Urte batetan bederatzira ere igo zen kopurua». Horrek «lan handia eskatzen du; jende askoren laguntza gain, diru asko behar da.



Hector Roldanek (ezkerrean) Xakaren oroimenezko lehenengo proba irabazi zuen; Gaizka Lejarretak (eskuinean) iazkoa. HITZA

Eta hori lortzea ez da lan erraza», azaldu du Otañok.

Aurten, «ez dute hainbeste arduratu hartu nahiz; hori dela eta, bi proba antolatuko



dituztela zehaztu du: gaur burutuko den Xakaren oroimenezko eta Altzoko proba, hain zuzen ere; azken hori uztailaren 31n izango da.

IBILBIDEA ▶

Herria	Ordua
Alegia (plaza)	09:00
Ikaztegieta	09:04
Ligorreta	09:09
Ordizia (bira)	09:15
Ligorreta	09:22
Ikaztegieta	09:27
Alegia (Errota)	09:32
Altzo-Azpi	09:34
Alegia	09:34
Ikaztegieta	09:38
Ordizia (bira)	09:50
Ikaztegieta	10:02
Alegia (Errota)	10:07
Altzo-azpi	10:09
Ikaztegieta	10:14
Aramako bideg.	10:25
Ordizia (Toyota)	10:26
Zaldibia	10:29
Larraitx	10:38
Abaltzisketa	10:40
Amezketeta	10:44
Ugarte	10:47
Alegia (Larraitx)	10:53
Ikaztegieta	10:55
Ordizia (bira)	11:06
Ikaztegieta	11:16
Alegia	11:19
Orendain	11:27
Abaltzisketa	11:33
Amezketeta	11:36
Alegia (Errota)	11:45
Orendain	11:53
Abaltzisketa	11:59
Amezketeta	12:02
Ugarte	12:06
Alegia (Larraitx)	12:12

IRABAZLEAK ▶

Urtea	Txirrindularia
1979/07/15	Hector Roldan
1980/07/19	J.I. Prieto
1981/07/18	Jabier Murgialdai
1982/06/10	Jose Maria Goñi
1983/06/02	Herminio Diaz
1984/06/21	Iñaki Arrieta
1985/06/06	J.A. Arexaga
1986/06/08	Iñaki Cendrero
1987/06/18	Ion Arrospide
1988/06/02	Aitor Garmendia
1989/05/25	Ramon Gonzalez
1990/03/18	Xabier Usabiaga
1991/07/14	Xabier Usabiaga
1992/07/12	Ibon Ajuria
1993/07/11	Marcelino Garcia
1994/07/09	Unai Osa
1995/07/02	Jokin Lazkoz
1996/07/07	Iñaki Manterola
1997/07/06	Mikel Pradera
1998/07/05	Iñigo Landaluze
1999/07/04	Ignacio Cumbreño
2000/07/02	Roger Lucia
2001/07/01	Lander Euba
2002/07/07	Jorge Garcia
2003/07/06	Gaizka Lejarreta

ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA
EDARITEGIA
Gosariak, pintxoak, meriendak eta... **GIRO JATORRA!**
Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

LASA AROZTEGIA
San Juan, 7 • ALEGIA
Tlf.: Tailerra: 943 65 38 03
Etxea: 943 65 34 57
Festa on onak opa dizkizue!

TXINTXARRI JATETXEA
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
ALEGIA
Tel.: 943 65 07 21

FSNAZU Jantziak
GAZTE ERROPA
ONDO PASA JAIK!
GIZONEZKO ZEIN EMAKUMEZKOENTZAT
San Juan kalea, 14 • ALEGIA • Tel.: 943 65 37 94

MARITXU JAHARIDENDA
Ondo pasa jaietan!

ATZOKO EKITALDIAK ▶

Aparrezko igerilekuan
jolastu ziren haurrak

Jolas parkean jolastu ondoren, apar jaia antolatu zen Kalebeherako parkean



Haurrak gustura ibili ziren aparrez eginitako igerilekuan. O.ESKITXABEL

O.ESKITXABEL

Eguraldia lagun, haurrak izan ziren, dudarik gabe, atzoko protagonistak. Jolas parkean batetik bestera ibili ondoren, Kalebeherako parkean aparretan busti ziren. Lurrean botata aparrez blai, gero ura botatzen zieten garbitzeko.

Gaur, Karmen Eguna izango da; txintzarrien egun handia.

Ekitaldiez gainezka aurkeztu dira gaurko egitarauak: goizean goizetik jarriko da martxan herria: txirrindulari proba, Orbegozori omenaldia... izango dira, besteak beste. Arratsaldean, berri, dantzariak eta herri-kirolak ikusteko aukera izango da.

Gauerako ere kontzertu ugari izango dituzte entzungai herrira gerturatzen direnek.

GAURKO EGITARAU ▶

EGITARAU OFIZIALA

09:00. Alegiako XXVI. Xakaren oroimenezkoa.

10:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Joan Mari Beltran eta bere taldearen kontzertua; Juan Joxe Orbegozo alegiarri omenaldia egingo zaio eta txirrindu lasterketako opariak banatuko dira.

17:00. Dantzariak Larraitza auzoko plazan.

18:00. Herri kirolak.

21:00. Zahagi ardoa.

22:00. Gaizk eta Kaotiko.

01:00. Disko top diskofesta

FESTA ALTERNATIBOAK

17:00. Ume jolasak.

19:00. Goitibera jaitsiera.

21:00. Zahagi ardoa bateratua Aralar zubian Julen Zulaika bertsolariarekin.

23:00. Sei urte, Keike eta Bihotzerrea Bulebarrean.

Ondoren. Herriko diska jartzaileak.

02:00. Bakailu gaua Gaztetxean.

FESTA ALTERNATIBOAK ▶

Musikaren topagune
bihurtuko da Bulebarra

Musika eskaintza zabala jasotzen da Festa Alternatiboetako egitarauan; gaur, Seiurte, Keike eta Bihotzerrea izango dira

OLAIA ESKITXABEL

Musikaren topagune bihurtuko dira egunotan Bulebarra eta Gaztetxea; bi leku horietan burutuko dira Festa Alternatiboetan antolatutako emanaldiak. Musika eskaintza zabala antolatu dute aurten ere.

Bulebarrean Seiurte (Berri), Keike (Ondarrua), Bihotzerrea izango dira gaur; bihar, La Vaca Guano (Madril), Lor (Elorrio) eta Zorabioak taldeak hartuko dute lekukoa.

Talde horien emanaldiez gain, herriko disko jartzaileak, trikitixa eta alboka taldeak ere

joko dute bertan. Seiurte Berriko taldeak Ekiozu diska aurkeztuko du; taldearen bigarren diska da honakoa. Diska horrekin etapa berri bat ireki dela azaldu dute taldekideek: Iñaki, Jokin eta Ekain Elortza eta Julen Oarbeaskoa.

Rap, rock eta metal doinuak

La Vaca Guano eta Lor taldeak izango dira entzungai bihar Bulebarrean; rap, rock eta metal doinuak izango dira, beraz, nagusi.

La Vaca Guano talde madrildarrak rap eta metal doinuak

astintzen ditu. Lor taldeko musikari gazteek, berri, rock melodikoa oinarri hartuta, metala esparrura edota pop musikaren melodiararen eramaten ditu bere doinuak.

Beraien diskan, ilusioa eta gogo ardatz harturik, kantu gogoangarriak biltzen dituzte. Taldea, Dummyk (kitarra eta ahotsa), Landerrek (kitarra eta ahotsa), Kimetzek (kitarra apaia) eta Ramirok (bateria) osatzen dute.

Igandean, jaien azken egunean, Zorabio taldea eta Trikitixa eta Alboka taldeak izango dira.

Euskal musika berritzeko saiakeran

Afrika eta Bad Sound System taldeak emanaldi asko ari dira eskaintzen batera Euskal Herrian zehar. Gaur, Alegiako Gaztetxean izango dira; berriro, Donostiako Aste Nagusian, abuztuaren 7an, Trinitate plazan joko dute bi taldeek.

Metak disketeak argitaratu ditu bi taldeen diskak.

Afrika taldea hiru kidek osatzen dute: Afrika Bibangek (ahotsa), Ernesto Miestrok eta Israel Monzonillo (konposizioa eta programazioa). Euskal musika berritzen du: elektronikoa, r'n'b eta jazz doinuak eskainiko dituzte. Aurten kalera-itu dute hamabi abestiz osatutako diska.

Bad Sound System taldea Irungo DJ eta MC kolektiboak osatzen du. Maiz, Fermin Murguzaren Dub Manifest zein Kontrabandaren emanaldiak itxi dituzte Euskal Herrian.

Hip-hop, rap, dance, ragga,



Afrika taldea osatzen duten hiru taldekideak. HITZA

free style... musika entzungo dute bertaratzen direnek. Aurten, maiatzaren kaleratu du taldek bere lehenengo diska. Bost kidez osatuta dago taldea.

Bihar, Gaztetxean eskainiko dute kontzertua bi taldeek, 02:00etan hasita. ◀



Fabrensa indus.z/g • ALEGIA • Tel/Fax: 943 65 47 40

Juan Jose Arandia
Igeltseroa
Festa zoriontsuak pasa!
Larraitza auzoa, 22 • 3.ºz. • ALEGIA
Tel.: 943 65 44 38
mug.: 649 31 41 99

ITURRIOZ BAINU GELAK
UR BEROGAILUAK
ITURGINTZA ETXE BEROGAILUAK
ERREFORMAK
San Juan kalea, 28 • ALEGIA
Tel.: 608 67 68 69
Festak ondo pasa!

ONDA
Ondo janaridenda
Ondo pasa festak!
San Juan, 44 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 40

ISKIÑA
TABERNA
Golzean Salda
Gauean martxal
INTERNET
San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

HORTZ-KLINIKA
Manuel Renobales Iturbe doktorea
Mº Pilar Martínez Andueza doktorea
Larraitza, 15-1.ºz. • ALEGIA
Tel.: 943 65 41 12

Larraitza kalea, 14
Tlf.: 943 65 55 33
ALEGIA
LARRAITZ
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

Galdaragintza
BURNI, S.L. Ondo pasa jaietan!
Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532
ALEGIA

JUAN ORBEGOZO ▶ PANDERO-JOLEA

«Ugarteko eta Bedaioko jaietan denek egiten zuten dantza»

Zortzi urterekin hasi eta orain dela gutxi arte aritu da Orbegozo panderoa jotzen; gaur omenaldia egingo diote

OLAIA ESKITXABEL

Jaiotzez Urrestillakoa (Azpeitia), ezkondu eta Alegian bizitzen jarri zen Juan Orbegozo; trikitilari, bertsolari, jaietako antolatzaile... askok ezagutzen dute. Izan ere, panderoa hartu eta herriz-herri jaietako erromerietan ohikoa zen aurpegia da Orbegozorena. Gaur, omenalditxo egingo diote herritarrek 12:00etan; bertan, Juan Mari Beltran eta bere taldearen kontzertua entzun ahal izango da, besteak beste. Eskatuz gero, panderoa astintzeko asmoa ere agertu zuen elkarriketako garaian.

Nolatan hasi zinen panderoa jotzen?

Anaiek panderoa jotzen zuten eta nik ere saltsan egon nahi nuelako hasi nintzen panderoa astintzen zortzi urte nituela.

Non eskaini zenuen lehenengo emanaldia?

Urrestillako jaietan jo nuen lehenengo aldiz hamabi urte nituenean; Auntxe Zarrarekin jo nuen.

Geroztik geratu gabe jairik jai ibili zara, ezta?

Hemen inguruko herri gehienetako jaietan jotzen nuen; Andoain ingurura ere asko joaten ginen. Ereñozura, esaterako, 23 urtetan jarraian joan nintzen. Alegian, Kalebeherako jaietan urtera jotzen genuen; azkenengo aldiz bertan joko nuen

orain zortzi urte inguru Astiazaran anaekin.

Non izaten zen girori jatorrena zuretzako?

Dudarik gabe Ugarte eta Bedaioko jaietan giro bikaina izaten zen; denek egiten zuten dantza eta oso dantzari onak daude, gainera.

Orain ere horrela al da?

Trikitixa galtzen ari da pixkanaka; jendeak ez du dantzarik egiten. Ez dakit nekatu egiten diren edo...

Lana egin eta panderoa jo. Lo egiteko denborarik izaten al zenuen?

Behin baino gehiagotan lanera jaietan pandero jo eta zuzenean joaten nintzen; herri askotan, pieza gehiago jotzeko eskatzen ziguten eta jarraitu egin behar.

Zaletasun sakrifikatua zen orduan panderoa jotzearena?

Panderoa jotzea asko gustatzen zitzaidan; bestela ez nintzen horrela ibiliko. Panderoa jo ondoren, etxera diru berria emango nuela nekienez gustura joaten nintzen jaietara.

Eleuterio Tapia izaten zenuen emanaldi gehienetan bikotekide.

Tapiarekin urte askotan aritu nintzen jotzen; Donostiako Trinitate enparantzan izandako trikitixa txapelketan, esaterako, bikote gisa lehenengo postua lortu genuen, 1971 urtean izan zen.



O. ESKITXABEL



Juan Orbegozo panderoa jotzen, Eleuterio Tapia trikitilaria ondoan duela. HITZA

Zuen abesti batzuek diskatzen omen daude grabatuta. Tapiatarren trikitixa deritzon diskan Eleuterioek eta biok Loiola irratiaren grabatutako pieza batzuk jaso zituzten. 1982an kaleratu zen diska.

Diska horretan 'Urtain'-i zuzendutako abestiak daude. Zergatik hori?

Urtain Fandangoa, Urtainen arin-arina... abestiak Urtaini

zuzendutakoak dira. Eleuterio segalaria eta apustuzalea zen eta konfidantza handia zuen Urtainekin; abestiak egin genituenean, gainera, 1970-1971 ean puri-purian zegoen gaia zen Urtainena.

Letrak zeinek egiten zituen?

Bertsolari askorekin genuen harremana; Urtainen abestia, esaterako, Basarri bertsolariak idatzi zuen. Musika egiten ge-

nuenean, letra jartzeko bertsoak osatzeko eskatzen genien bertsolariei; Lazkao-Txiki bera gure etxean behin baino gehiagotan egona da.

Gaurko omenaldirako urdu-ri?

Estimatzekoa da omenaldia antolatzea; ez nuen espero. Berrutik pasatu ere ez zitzaidan egiten, egia esan; ikusiko dugu zer pasatzen den.

AUTOCARES TXINDOKI

FESTA ONAK PASA HERRIKOAK ETA KANPOKOAK!

ALEGIA
Tlf.: 943 65 30 12

HITZA, eskualdeko plaza

661 678 818

Toki aproposa iragartzeko

Eizmendi Enea JATETXEA

Festa zoriontsuak opa dizkizue

San Juan, 52 • ALEGIA
Tel.: 943 65 30 98

AZPEITIA

ELEKTRIZITATEA, S.L.

Festa zoriontsuak opa dizkizue!

San Juan, 6 • ALEGIA
Tel., 943 65 30 73 - mug.: 608 77 35 05

BERRI Lantegia

NEKAZARITZA, JARDINERIA ETA BASO
TRENERIAREN SALTAMENUA ETA KONPONKETA

Amezketako errep. z/g • ALEGIA
Tel./faxa: 943 65 28 46 • mug.: 608 97 82 88
e-mail: talleresberri@telefonica.net

TALLERES GARA

PLANO GAINEKO PIEZEN MEKANIZAZIOA

Amezketako errep. z/g
ALEGIA
Tel.: 943 65 15 21
Faxa: 943 65 40 66

GERMAN INTXAUSTIREN OMENALDIA ▶



German Intxausti hain maite zituen txistua eta danbolina eskuetan dituela. MAIDER JAUREGI

OLAIA ESKITXABEL

Orain dela hilabete gutxi zendu zen German Intxausti argazkilaria eta txistulari alegiarra; bere heriotzaren momentuan ezezik orain ere eskertza keinuak ikus daitezke. Horieta bat da etzi, igandean, Alegiako plazan egingo den omenaldia.

«Intxaustik asko egin du herri honengatik eta herriak zerbait egin behar duela pentsatzen dut, merezi duelako herri batek duen zorra da antzeko ekitaldia antolatzea», azaldu du Joxe Manuel Oiartzabalek omenaldia prestatzen aritu den alegiarrak, Intxaustiren lana azpimarratu nahian. Bere ondoan izan du Intxaustiren semea, Rikardo.

«Martxoan hasi ginen omenaldia prestatzen; lehenengo eta behin, Javier Hernandez Arsuagarengana jo genuen. Aitaren abestiak berak moldatu zituela kontutan izanda, errepertorioa bere esku utzi genuen», dio Rikardo Intxaustik.

Gauzak horrela, bi zatitan banatu daiteke igandeko txistularien Alardea, Lehenengo zatian, German Intxaustik bere emanaldietan gehien jotzen zituen abestiak joko dituzte txistulariek. Bigarren zatian, berriaz, Intxaustik berak konposatutako piezak entzungo dira. Alardeko azken abestia *Txintxarriaren hileta* izango da: «Abesti hori orain dela bi urteko txintxarriaren erreketan estreinatu zen, baina aita ez zen gustura geratu konposatutako abestiarekin; tristeza iruditzen zitzaion. Gero, konponketa egitea erabaki zuen; arin-arina

Txistu dinuak, Intxaustiren omenez

Hogeita bost txistulari inguru bilduko dira German Intxaustiren omenaldian



Intxausti iazko jaietan danbolina jotzen. HITZA

EGITARAUA ▶

Intxaustiren oroiemenezko txistu kontzertuan honako abestiak entzungo dira:

‘Zortziko’. Candido Albistur.
Antziñeko abestiak. Arm.
Jose Franco.

‘Minueto’. B.Laskurain-Arm.
Jose Maria G. Bastida.

‘Txistu soinu’ (Alborada).
Gerardo Butron.

‘Alborada de Segura’. Arm.
A. Yurrita.

‘Polka’ (Txintxarri abesbatza). German Intxausti-Arm. Javier Hernandez Arsuaga.

‘Fandango’ (Eduarne).
German Intxausti-Arm. Javier Hernandez Arsuaga.

‘Miel Txiki’ (Arin-arin).
German Intxausti-Arm. Javier Hernandez Arsuaga.

‘Xamot’ (Biribilketa).
German Intxausti-Arm. Javier Hernandez Arsuaga.

‘Txintxarriaren hileta’ (Hileta doinu-Arin arin).
German Intxausti-Arm. Javier Hernandez Arsuaga.

gehitu zion. Azken konponketak klinikan zegoela eman zizkion Hernandezi; beraz, igandean estreinatuko da abesti hori, azaldu du Intxaustik.

Germanen lagunak

Emanaldian, German Intxausti zenaren gertuko lagunek jotzea nahi zuten antolatzaileek; hala ere, gehienak zenduta daudela ikusita, Intxaustirekin jotzen zuten txistulariengana jo dute. Horrela, hogeita bost txistulari inguru igoko dira oholtza gainera. Omenaldia hasi aurretik, bestalde, herriko kaleak txistu doinuz jantziko dituzte.

Txistulariak ezezik, Txintxarri abesbatza eta Alegiako Dantza Taldeak ere hartuko dute parte omenaldian. Txintxarrik Intxaustik abesbatzaren 25. urteurrenerako eginiko *Polka* abestia kantatuko dute dantzariak dantzatzaren duten bitartean. Antolatzaileek, bitaldeek omenaldian parte hartzerakoan agertu duten interesa eskertu nahi izan dute.

Antolatzaileek, bestalde, German Intxaustiri buruzko eskuorrian Joxe Gastesi alegiarraren lana aipatu nahi izan dute «inprenta arazoak medio, bere izena ez baita agertu».

Igandean, 12:30ean izango da German Intxaustiren omenaldia; txistularien Alardea behar den bezala entzuteko aulkia jarriko dituzte plazan. Ordubete inguru iraungo du emanaldia.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegietia. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga, A., Korreo

kalea, 2 (Tolosa) 67 01 28.

Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 00 22

anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Motoa. Motoa GO Aprilia SR-50, 7,700 kilometro eginak dituena. Salgai. Oso ondo zaindua. 1,500 euro. Tel: 943 69 03 82.

LAN ESKAINTZA

Taberna. Astebukaeratarako

neska bat behar da barrarako.

Taberna. Tolosaldeko taberna

batean lan egiteko neska bat

behar dugu. P.K. 171 Villabona.

Alegian. Emakume bat behar da

etxeko lanak egiteko Alegian.

Ordutegia 10:30etik 14:30era.

Tlf: 943 65 30 34 (deitu

arrazaldeetan).

EROSKETAK

Bateria. Bateria erosiko nuke baldintza onetan. Tlf: 943 65 19 71 / 943 65 37 94.

IBARRA ▶ ERAKUSKETA

Argazki-rallyko erakusketa ikusteko azken eguna da gaur

Haur eta gaztetxoek natura eta paisaiei buruz lehiaketarako aurkeztutako argazkiak dira ikusgai Kultur Etxean

D. GIBELALDE

Irudi txikiak izeneko argazki rally-an parte hartu zuten haur eta gaztetxoek inguruko argazki eta marrazkiak ikusteko azken eguna da gaurkoa. Kultur Etxeko aretoan ikusi daitezke herriko 6-16 urte bitarteko gaztetxoek lanak.

Bakoitzak bere gustura, bere argazki kamararekin ateratako argazkiak dira, naturako gaietan oinarritutakoak gehienak. Ibarrako paisai, txoko eta bazter ugari ageri dira, eta marrazkiak ere ez dira falta. Taldeka egindako lanak dira, gutxienez hiru lagunekoa. Ikusteko azken eguna da gaur.



Kultur Etxeko aretoan ikusgai dira argazki rally-ko lanak. D. GIBELALDE



Mikel Uribe gogoan, lagun eta senideek

LEABURU ▶ Herenegun, uztailak 14. hiru urte bete ziren ETak tiroz Mikel Uribe ertzaina hil zuela. Uribe gogoan izan zuten haren lagun eta senideek egun horretan. Egunean zehar

lore sorta ugari ipini ziztuzten herrian haren omenez dagoen oroitarriaren alboan. Arratsaldean meza izan zen Leaburuko elizan Uriberen omenez. D. GIBELALDE

ELDUAIN ▶ OSASUNA

Elikadura eta elikagaiak hizpide, gaur Urdelar-en

Kristina Otermin izango da 17:30ean Kutxak antolatutako jardunaldien baitan

D. GIBELALDE

Osasunaren inguruko gaietan informazioa eta prestakuntza emateko asmoz, Kutxak Osasun Ikasgelak izeneko jardunaldi praktikoko batzuk antolatu ditu. Udalak horietako batzuk aukeratu zituen herrian emateko; gerneru-ihesaren inguruko izan zen lehena, lehen soro-spenen inguruko bigarrena, eta gaurkoan elikadura eta elikagaiei buruzko hitzaldia emango du Kristina Otermin Urdelar biltokian. Arris-kurik gabeko elikadurarako jarraibideak eta gomendioak emango ditu Otermin.

Kutxako Osasun Ikasgelen

helburua osasun onaren iturri gisa elikatzeko modu egoki baten oinarriak eta ohitura onak zabaltzea da. Horretarako, mantengai gutxiago edo gehiago hartzeak izan ohi dituen ondorioen berri emango dute.

Gaur, 17:30ean hasiko da hitzaldia, eta ordu eta erdiko iraupena izango du. Besteak beste, janari osasuntsuak, kontserbatzaileak, koloragariak, pestizidak... aztertuko ditu Otermin. Ondoren, elikadurazko infekzio eta intoxikazioak, janariak nola prestatu, osasuntsu jateko moduak, elikadura orekatua, osasun-iturriak... izango ditu hizpide.

IBARRA ▶ KULTURA

Uztailaren 21 eta 28an Danborradako entseguak

Belabieta kiroldegian egingo dituzte; haurrek 20:00etan, eta helduek 21:00etan

D. GIBELALDE

San Bartolome jaietako danborradan entseguak hasi dira dagoeneko; bi egin dituzte dagoeneko. Danborradan 25. urteurrena dela eta, ekitaldiko antolaketa arduratzen den batzordeak, 25 urte hauetan zehar parte hartu duten pertsona guztiei aurten ere parte hartzea eta antolatu diren entseguetara joateko animatu nahi dituzte. Entseguak Belabieta kiroldegian egingo dira honako egutegi eta ordutegian: uztailaren 21ean eta 28an. Jaien aurretik ere beste bi entsegu egingo dira; abuztuaren 18 eta 19an, hain zuzen.

Haurrek 20.00etan egingo

dituzte entseguak, eta helduek berriz, 21.00etan. Danborrada Taldeak gogorarazi nahi du danborradan atera ahal izateko gutxienez bi entsegutan parte hartzea ezinbesteko baldintza dela. Bestalde, datorren astetik aurrera hilaren bukaera arte 25 urtean bildutako argazkien erakusketa jarriko dute Danborrada Taldekoek, eta abuztuaren herriko tabernetara zabalduko dute erakusketa.

KZ gunea, itxita iraila arte

Ibarrako KZgunea abuztuaren 31ra itxita egongo da, oporrerengatik. Irailaren 1etik aurrera berriz proiektu berriak martxan ipiniko dituzte.

iragarki laburrak ▶

Haurtzaindegia, eta Hezkuntza Bereziko laguntzaileak. Eskola eta zentro publikoetarako lanpostuak. Presta zaitez. Informazioa dohain. 943 650193.
Laborategiko teknikari, laguntzaileak. Plazak libreak udalaxe,

Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarako. Informazioa dohain 943 650193.
Suhiltzaileak. Sarrera berriak tokiko, eskualdeetako parkeetara. Soldata, gutxi gorabehera: 1.500 euro. Informazioa dohain. 943 650193.
Administrariak. Laguntzaileak nahiz

teknikariak. Udaletxeetan eta erakunde publikoetan lan egiteko. Deialdiak maiz eta baldintza Eskola Graduata. Informazioa dohain 943 650193.
Ingurumena. Langile, teknikari eta agenteak udalaxe, Foru Aldundi eta

Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943650193..
Basozaina. 17 postu libre eskaintza lanpostuan egin ezazu lan. Naturan lan egiteko lanpostua. Informazioa dohain. 943 650193.
Gizarte laguntzaileak. Hurrengo

deialdiak Gipuzkoako udalaxe ezberdinetan eta Foru Aldundian. Informazioa dohain. 943 650193.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak. Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzan lanpostu libreak. Informazioa dohain. 943 650193.

LEITZA ▶ KIROLA

Saralegi Nafarroako aizkolari gaztetxoek txapelak izan da

Lehendabizikoz parte hartu eta irabazle suertatu da leitzar gaztetxoak Iruñan

JAIONE ASTIBIA

Beñat Saralegi Urroz leitzarrek Nafarroako Aizkolari Gaztetxoek Txapelketa irabazi zuen lehengo asteartean, sanfermin-jaien barrenean jokatu zen jaialdian.

Egin beharreko lanak, metro banako ingurua zuten hiru en-

bor ebakitzea, 7 minutu eta 36 segundotan bukatu zituen, bigarrenari, Garikoitz Larretxeari, minutu bateko aldea atera ziolarik. Bide batez, aipatzekoa da hirugarren Ruben lehengusua geratu zela. Laugarren parte hartzailea, Joseba Jimenez zen. Txapelketan hasieran sei lagunek eman bazuten ere ize-

na, bik ez zuten parte hartzerik izan.

Lau gazteak lanean sutsu aritu omen ziren eguzkipean, bakoitza bere erakustunarekin. Foruen Enparantzan bildutako jendetzaren aurrean.

Saioaren hasieran abiada oso azkarrean aritu omen ziren aizkorian, bukatzeko gogoz be-

zala eta erakustunek, nahiz jendeak kolpeak lasaia emateko oihu egiten omen zioten Beñati «nonbait lana bukatuko ez nuen beldur», zioen txapeldunak.

Lehendabiziko aldia zen gazte honek txapelketan parte hartzen zuela eta saria eskuan itzuli zen herrira, pozik asko.

BEÑAT SARALEGI ▶ AIZKOLARIA

«Oso gustuko dut aizkora, akaso ttikitatik horixe ikusi dudalako»

Beñat Saralegi Urroz, 14 urteko leitzar gaztetxoak aizkora du afizio eta dagoeneko erakustaldiak egiten ibiltzen da herriz herri.

Noiz hasi zinen aizkorian, jendaurrean?

Bederatzi urte nituela atera nintzen lehendabiziko aldiz plazara. Leitzan eta gainera santiburtziotan, umeen egunean. Bakarrik aritu nintzen, enbor ttiki batekin.

Nor duzu erakustun?

Aita. Beti aitak erakusten dit. Erakustaldietan ere, biak ibiltzen gara, beti ez bada, gehienean. Berak erakustaldi bereziak egiten ditu: 5 metroko altueran enborra ebaki, zintzilik dagoela, esku bakarrarekin... eta nik korte bat edo bi egiten nituen lehen, baina orain iada, bi edo hiru ere ematen ditut. Eta prestatzerakoan nahiz plazetan, beti, aitarekin ikasten dut. Batzutan osabarekin ere aritzen naiz, baina aitak ezin duenean.

Saio asko izaten dituzue?

Astez ez dugu saio askorik izan orain arte, herenegungoa [asteartez] eta Uruñan izandakoa az gain. Baina gero, asteburutan bai, gehientsuenetan saioen bat badugu. Hala ere, beste

urteetan baino gutxiago ditugula iruditzen zait, akaso jendea herri kiroletaz aspertu egiten zen... Beti ere, ttikitat baino erakustaldi gehiago ditugu orain, jendeak ere ezagutzen baikaitu pixka bat eta... Gostura.

Herriz herri ibiltzea, ez al da nekosoa?

Ez. Jende asko ezagutzen da, beste kirolariak, eta gainera oso giro ona izaten dugu gero artean. Aizkorian aritzea oso gustuko dut eta aukera dudanean jarraitu nahi nuke.

Baduzu bereziki atsegin zaizun plazarik?

Leitzakoa. Hemen oso gustura aritu izan naiz aldi guztietan, herriko giroa dago, lagunak, ezagun asko ere bai.

Zer egurrekin aritzen zara?

Metro beteko ingurua duten enborrak ebakitzen ditut. Txapelketa baino lehenago, makala erabiltzen genuen, baina hobeki prestatzeko pagoarekin hasi ginen eta orain horrela aritzen gara. Hau gogorxeagoa da.

Zailxeago hauekin hobeki edo beratzekin.

Pagoan ere denetik suertatu liteke. Baina nik uste, aizkolari



JAIONE ASTIBIA

guztiak ere, samurrekin gusturago aritzen direla, aizkora sartu eta ezpal handiak botaz. Orain, gogorragoetan ere ikasi behar da, zailtzeko.

Gerora begira, aizkorian jarraitzeko gogoa baduzu?

Oso gustuko dut, akaso ttikitatik horixe ikusi dudalako etxean ere. Baina, gerora ere jarraitu nahi dut, oraingoz. Ikasketekin eta moldatuz, oso gustura ariko naiz.

Asteartean jokatu zen txapelketarako prestaketa berezirik egin duzu?

Bai. Pagoa erabiltzen hasi ginen eta azkeneko bi hilabete hauetan, aurrean astean bitan egin ditugu prestaketak, baina eguna hurbildu ahala, iada bi egunetik behin. Gainera, Iruñean bero handia egiten duenez, saio batzuk eguerdian, bero handiena dagoen ga-

raian, egin ditugu, bada ez bada ere.

Txapelketan aritua zinen inoiz?

Ez, sekula. Federazioetik gonbidapena bidali ziguten, eta prestatzeko denbora bagenuenez, joatea erabaki genuen, lana ere egiteko modukoa zela iruditzi zitzaigulako. Eta irabazi egin genuen! Izugarriko poza eman zidan. Zortea izan nuen.

Zortea edo prestaketa, ez?

Besteak ere prestatu izanzen ziren, baina egun hartan nik irabaztea atera zen.

Beste txapelketaren batean parte hartu behar duzu?

Orain ez, baina hemendik urte batera edo, Euskal Herrikoan parte hartuko dugu agian. Harako, lan handiagoa izaten denez, gehiago prestatu behar da eta igoz joan. Ikasiz eta igoz joan behar dugu. ◀

ARESO ▶



Aresoko 600 kiloko soka. J. A.

Sokatarako finalak bihar jokatuko dira Laukizen

Aresoko pisu ttikiko bi taldeak bertan izanen dira, txapela etxera ekartzeko aukerarekin


J. ASTIBIA

Bihar jokatuko dira Laukizen, Euskal Herriko sokatar txapelketako pisu ttikietako finalak. Eta bertan izanen dira Aresoko tiralariak ere.

Aipatzekoa da, biharkoan aresoarrek sokarako tiratzailer bat gutxiago izanen dutela aukeran, Migel Angel Sukuntzak eskuan mina hartu baitu. Ondorioz, horren lekua 600 kilotako saioetan Angel Mari Loiarrek eta 560koetan, berriz, Patxi Baraibarrek hartuko dutelakoan dira.

Bestalde, 600 kilotara iris-teko, Aresoko saioetan gertatu zen bezala, Nuarbeko tiratzaile bat ere beraiekin izanen omen dute.

Edozein moduz, Aresoko taldearen apusturik garrantzitsuen 560 kiloko txapela lortzea izan da, aurtengo denboraldirako ere: lau urte daramatzate lur gaineko tiraldiek eta guztietan, txapeldun atera dira pisu horretan. Eta lortzeko itxaropenak izateko moduan dira, sailkapenean, lehendabiziko baitaude 10 punturekin. Beste pisuan bigarren daude 15ekin, Nuarbek 2 gehiago baititu.



HITZak zozketatutako Leidor Zineman astebukaera honetan 'LADYKILLERS' filma ikusteko bi sarrerak irabazlea: MARIA JESUS LARRETA AMONDARAIN (ABALTZISKETA)

